

ERREPORTAJEA KORRIKA ARGAZKITAN · GEHIGARRIA EUSKALTEGIETAN ARIGERA
KULTUR ELKARRIZKETA JASONE OSOROREN "KORAPILOAK" LIBURUA KALEAN

BARREN

ASTEKARIA

ELGOIBAR K O A S T E K A R I A · 2001eko apirilaren 6a/VIII. urtea/306. zkia



KORRIKA 12

Elgoibar euskarara bilduta

"MUNDU BAT EUSKARARA BILDU" (Korrika 12ren lema)

GREMIOEN GIDA

Gremioen gida honetan azaldu nahi baduzu, deitu ! ☎ 943 74 37 04

ARozTEGIAK

BIENA

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
"a 943 74 31 16

GARCIA

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
*3 943 74 32 38

LODOSO

Leihoak
Ermuaranbide, 16
12 943 74 34 90

SORALUZE

Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
Tr 943 74 36 34

ULAZIA

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
w 943 74 05 47

ZABALA

Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea, 16
Tr 943 74 03 96

11 V107KL9U 1//

GLAS CONTROL S.L.

Inpermeabilizazioak
Olaso 27, 47. pabiloia
z° 943 74 30 94

(W2U

ASENSIO ARTETXE
Azpilgoeta, 16 MENDARO
943 75 50 83
Ti 943 70 65 57

ITURGINTZA

ANGEL

Santa Ana, 5
943 74 17 61
689 04 92 06

JUAN CARLOS

Urasandi, 59-61
943 74 34 87

ONGI

Urasandi, 8
w 943 74 10 82

PAGOAGA

San Antolin, 13
z' 943 74 02 79

TELLABIDE

Azpilgoeta, 19 MENDARO
15 943 75 50 62
607 75 50 62

ZALDUA

Urasandi, 26
943 74 05 30

ZUBIZARRETA

Ubitarte, 5
rt 943 74 07 89
w 608 14 30 40

IPINTZA

Foruen enparantza, 4
943 74 04 40
z' 607 74 04 40

BIOK DEKORAZIOA

Santa Klara, 11 behea
943 74 15 52
71 606 43 11 19-20

ELEKTRIZITATEA

ARAMAR

Morkaiko, 1
z' 943 74 12 80

AZPELETA

San Frantzisko, 51
"a 943 74 12 38

BETI ARGÍ

Errosario, 6
Er 943 74 16 44

JOSEBA

Pedro Muguruza, 29
u* 943 74 09 02
659 93 49 64

URZELAI

Santa Ana, 12-14
z' 943 74 13 76

IGELTSERITZA

ANTONIO MARKEZ

Urasandi, 24
tr 943 74 34 18

ASKETA

Osio, 7 DEBA
Tr 629 34 43 89

JOSE LUIS MENDEZ

Urasandi, 24
943 74 29 87
1T 679 19 77 47

IPINTZA

Trenbide, 25
630 95 97 58-7
Faxa: 943 74 45 97

r³))) © { j . In | b L & _ ,

JESUS M¹ GABILONDO

Ubitarte, 4-5 esk.
n" 943 74 45 99 1/11-



Lur industrialia eta bizitzeko lurra

Ekonomia zaindu gabe heni batek nekez egin dezake aurrera, baina diru kontuak beti aurretik jartzea ere, triste samarra iruditzen zait. Elgoibarren industria bultzatzea premiazkoa dela ez dago dudarik, familia gehienak bizi baitira lanbide horretatik. Sigma enpresa berriak hartzeko prestatu dute, eta Albitxurin milaka metro karratu daude industrialde moduan erabiltzeko. Lurraren falta ez dadila aitzakia izan enpresak kanpora joateko.

Bizimodua hobetze aldera, oster, ez dakit nik ahalegin nahikoa egiten den. Mundu guztira puntako makinak saltzen ditu herri honek, baina gero, badirudi ez dela gai bere ongizatea zaintzeko. Parkeak falta dira, pasiatzeko lekuak, trafikotik libre dauden tokiak. San Frantzisko kalean bizi naiz, eta Urasandin laga behar izaten dut kotxea. Aparkatzeko leku gutxi egonda ere, sakrifikatzeko prest nengoke herriko toki batzuk kotxerik gabe ikusteko. Adibidez Plaza Txikia, hasi taxien geltokitik eta elizaraino. Tarte hori, berde gehiago ipinita, oso aproposa izan daiteke umeen jolasleku bezala edo trankil egoteko. Bada ordua herriaren erdialdean horrelako zeozer asmatzeko. Duela urte batzuk gauza bera egin zuten Plaza Handian, eta orduan konturatu ginen zelako errua zen han kotxeak aparkatzen lagatzea.

Aste honetan, Udalak 2001. urteko aurrekontuak onartu ditu. 1.500 milioi pezeta dira. Herria atseginagoa egiteko askoz diru gehiago beharko dute, baina dagoenarekin ahalegindu daitezela behinrat. "Financial Times" egunkari famatuan atera zen Elgoibar industrian egindako lan onarengatik. Makina Erremintaren hiriburua ez al da gai bere bizi baldintzak hobetzeko?

Aitor Zabaleta



U.....A

U-kin hasi eta A-kin bukatzen da hitza. Hitza? Bai, U-kin hasi eta A-kin bukatzen dan aroa. Aroa? Bai, U-kin hasi eta A-kin bukatzen dan sasoia. Sasoia? Bai, sasoia, hitza, aroa eta zuk nahi duzun guztia. "Hitz" honetan dena da lore. Loreak dira lore, zelaia dira lore, zuhaitzak dira lore, bihotzak dira lore, zu zara lore. Lore? Bai, lore, eguzkiari esker. Eguzkia? Bai, aro, sasoi honetan sarriagotan agertu ohi da, gorriago egon ohi da, gehiago berotzen du. Berotu? Bai, eta ondorioz loreak esnatu egiten dira, gure ilusio, nahiak indarberritu egiten dira eta maitasunak piztu, kasu batzuetan berpiztu egiten dira. Ze polita. Bai, oso polita. Beraz... zein da hitza: U-kin hasi eta A-kin hasten den UDABERRIA. Ze polita. Bai, oso polita.

Eguzkiñe Aranberri.

korrika



erREporTajEa

MOTzak..... 10

othivarria

kiROlAk 20

aGenda 24

Onotizina

MURALA ETA KARTELAK

Aurreko astian Madalatik pasau eta presuen aldeko inurala ikusi naban. Askok gustau jatan eta egin zabenak txalotu nahi nitxuzke.

Kalian holako mural bat ikustia jendiari gauzak ez ahazten laguntzen dio: Elgoibarko lau pertsona preso daozela, adibidez, eta gainera, etxetik hain urrun. Euretako hiru, 15 urtetik gora eta hiru laurdenak beteta ditzuztelarik.

Lotsagarrixa iruditzen jatana holako mural batek astebete ere ezin irautia da.

Hoffen harira, gainera: hau borratu dabenean, Udalak kontratatutako kanpoko enpresa batekuak, tontuak dia edo ez dakite irakurtzen. Ez da muralan kontua soilik. Kartelak ere, danak apurtu eta kentzen ditzuzte, fetxak kontuan hartu gabe.

Azkeneko bi astietan Gaztetxian egondako bi diapositiba emanaldixetatik bat galdu dot, justu kartelik ikusi ez dotelako. Hau da, denbora baino lehen kendu ditzuztelako.

Batzuk kartelak irakurtzen ditzugu-eta!!

Bizitzan ironiak, Udaleko Kultura Sailetik antolatutako ekintzen kartelak ere kendu izan ditzuzte denboria baino lehen. Antzerki baten kasua etortzen jata burura.

Udalari edo gai honetaz arduratzen danari, hau aldatzeko zerbait egin dezan eskatu nahi nioke.

E.O.
NAN 15399795

ESKERRAK GUZTIOI

Ikastolaren izenean esketralc eman nahi dizkiegu joan den igandean ospatutako VIII. Haur Krosa antolatzen lagundu diguten guztiei: Elgoibarko Udala, El Diario Vasco, Altzolako Urak, Joggers Kirol Arropa eta batez ere, babeslea izan den Kutxari. Baita parte hartu duten neska-mutilei ere.

Datorren urtean ere, apirilaren 14an, laguntzeko prest egongo zaretelakoan, agur bero bat.

Elgoibarko Ikastola

APIRILAREN 10EKO GREBA OROKORRAREKIN BAT

Euskal Herriari, herri den heinean, eskubide zibil eta politikoak dagozkio, eta bi estauek, errepresioa erabiliz, eskubide horiek guztiak ezabatu nahi dituzte. Eskubide horien defentsan, herri honen defentsan ari diren guztiak jipoitzen dituzte. Honez gain euskara, irakaskuntza eta kultura alorrean eraso bortitzak jarri dituzte martxan. Euskal Herria burujabea eginez soilik eskuratu ahalko da demokrazia herri honetan. Ezin garelako etxean egon, une honetan bat egiten dugu apirilaren 10erako Greba eta Mobilizazio dei honekin.

Mikel Alberdi, Iñaki Jaio, Inaxio Irlondo eta Juan Mari Mendizabal, preso politikoak; Urko Rosario, Iñaki Iriondo, Imanol Arregi, Jon Ander Urbiela, Jose Ramon Sousa, Mikel Zulaika, Bittor Manuel Lopez Ortuoste, Palxi Argarate, Marisabel Gurrutxaga, Antonio Rojo, Fernando Salegi, Xabier Astigarraga eta Beilat Txurruka langileak; Edurne Lasa, Jose Mari Larrañaga eta Txotxe Urrutla, antzerkigileak; Mikel Dakinta, Juanito Urristi eta Jon Solabarrieta, sindikalistak.

Urruzunoren begi izkutua



Tendentziak markatu nahi dituzten adituen arabera, eraikin sofistikatuen marrazketa orria da etorkizuneko hiria, material modemoz eta antolaketa funtzionalaz eraikia, egitura zuzen eta zainduz hornitua, talde guztiekiko errespetu tanta neurtuez apaindua.

Herri txikiek tankera xumeagoak bere egingo dituzte, grisagoak, tradizionalagoak, apalagoak. Laugarren mailako errepideen lokailu izatera konformatu beharko, jendez hustuak, aurrerapenaren fruitu helduegien hartzaile.

Elgoibarrek petatxoekin aurre egiten segi diezaioke jasandako hazkunde industrial basatiari, bere zulo konplexua areagotuz, mendiei errepara diezaiogun palmerna zuri erraldoiak landatuz, edo ibai gainean etorbide ponposoenak imajinatuz, ibai osoa estaliz agian. Funtsean, bizitzeko beste edozein leku bezain balekoa dela frogatuz, eta aurreikuspenak eta aditu usteak erdia ustel

Mikel Artola

RA

BARRERASTEKA

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
t/f 943 74 41 12
Publizitatea:
o 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:
barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
veov.topagunea.com/barren
ARGITARATIALEA
Elgocarko Izarra

g ELCOIHAIKO IZAIRA

LAGUKTZAILEA Elgoibarko Udala ZUZENOARIA Eñi Aizpuru KazerrArum Irati Agirreazaldegi, Asier Orbea PUBLIZTATEA Andoliz Agirregomezkorta MAKETATZAKEA Bea Ansola ADMINISTRA7JOA Amaia Rodzigez GERENTZIA Jon Peli Uriguen eta M. Angeles Ortuoste, KOLAEORATZAILLEAK Amaia Larb, Unai Argarate, EgudheAranbern, Lorea Perez de Albeniz, Jokinyartinez, Ailor Zabaleta, Lene Olga Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Iker Maguregi, Jon Gurrubaxaga, Jon Eugi, Ainboa Andonegi, Kokoe K.E. eta Urruzuno AZALEKO AITGAZKOL Azkue argazkiak INPROUTEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4 000 ale LEGE GOADAILLFA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Elgoibarko Udalak, Eusko fauriarazako Kultura Sailak eta Foru Aidundiak diruz lagundatako aldizkaria.



kutxa

CIDANOBAT

GOITI
GR11.0 CANOBAT

Oharra

Datorren ostiralean, hilaren 13an, ez dugu BARREN kaleratuko. Beraz, Ostiral Santuan ez duzue astekaria jasoko baina hilaren 20an berriro ere zuen etxeetan izango gaituzue. Ondo pasa Aste Santuko oporrak!



- Emakume bat etorri zaigu BARREnera aurpegia mailatuta San Rokera bideko aldapa hasieran jausi dela-eta. Honako hau esan digu: " Hirugarren pertsona naiz bertan erori dena. Eskailerak kendu eta aldapatxo bat ipini dute baina oso arriskutsua dela iruditzen zait. Konpontzea komeni da".

- Gizonezko batek honako kexa hau BARRENen azaltzeko eskatu digu: "Santa Klara kalean, goizeko 8:00etan ikaragarritzko karabania sortzen da eta munizipalik ez da egoten. Ondorioz, kotxiak bozinja jotzen hasten dira, horrek dakarren eskandaluarekin. Horrelakoak dagokionari kontuan hartzeko eskatuko nioke".

VD,10111

- Mutil koadrila bat etorri zaigu BARREnera AEK txalotu nahi dutela esatera: " AEK euskaltegia txalotu nahi dugu; astelehenean guztia oso ondo antolatu zuen".
- Herri Eskolako 2. mailako hurrek San Pedron pasa zuten eguna pasa den igandean, hilaren I ean, eta oso ondo pasa zutela-eta, gurasoak txalotu nahi dituzte egun hori posible egiteagatik,

alkatea

b

Elgoibarren bada zer hobetua!



rraka aldera
hegira
dauden
Jetxeen
fatxadak

konponduko nituzke. Izan ere, errepide generaletik autoz pasatuz gero ikusten den irudia ez da batere egokia. Etxe batzuk herrituta daude, bestiak, berriz, oso hondatuta. Beraz, kanpora begira herriaren irudia hobetzeko irtenbide onena da hori. Fatxadak margotzeko ez nituzke oso kolore deigarriak erabiliko, apalak baizik. Helburua ez baita jendeari atentzioa deitzea, itxura herritzea baizik. Bestalde, herritar askok dugun kexa dela-eta aparkaleku faltaren arazoa konponduko nuke. Gidatzen ez dudan arren, etxeko autoa non laga asmatu ezinda ibiltzen gara sarritan.

ISABEI, BERMEJO
Etxekoandrea

Barrak, Birak eta Barreak



f_m'

("Mundu bat euskarara bildu" lemapean, hainbat eta hainbat elgoibartar ere euskarara bildu ziren pasa den astelehenean, hilaren 2an. Korrika 12. edizioak jende ugari mugitu zuen herrian. Guk lekuko aldaketa guztiak jaso ditugu erreportaje honetan. Horretarako, Julian Azkue argazkilariaren laguntza ezinbestekoa izan dugu.



HAIZEA.- Paula Pelaz, Maite Barruetabefia eta Lourdes Zubiaurre.



ETXEPE Ikuska Uriguen eta



ELGOIBARKO IZARRA
Befiat Silbao eta Ana Bereziartua



IMH-HERRI ESKOLA-HERRI INSTITUTUA
Asier Garcia, Juan Carlos Adot,
Ifiaki Konde eta Sare Gurrutxctga.



GAZTE ASAN
Iker Maguregi eta E



IKASTOLAKO LANGILEAK Rosa Mata
IKASTOLAKO GURASOAK Jabier Agirrebefia
IKASLEAK Unai Garate



EUSKADIKO KUTXA
fellx Etxeberria, Jabier Zengotita eta
Jose Gurrutxaga



TXANKAKUA
Isabel Azkue eta Aintz

AR rikka



Uriguen



UDAL EUSKALTEGIA
Jose Luis Arpillaga



ZAZPIKI IRRSI
Jon Gerrikabeitia



A
Oiarzabal



GESTORA-SEN¹DEAK
Hodei Otegi eta Juan Katios Markos



ERROTATXO
Arnaia Mart'inez de Bujo



e Garate



EH Asier Zengotita



EUSKARA BATZORDEA
Miren Arrate Arrieta

korrika



KIMETZ J.Luis Apellaniz
eta Leire Apellaniz



AEK EUSKALTEGIA
Maite Aiuria, Ane Goikoetxea,
Arantxa Apraiz eta Pili Gurrutxaga



MORKAIKO
Julian Viliena, iñigo Bastida eta Igor Arriola

Felix Etxeberria, Jabier Zengotita eta Jose Gurrutxaga Korrikaren edizio guztietan atera dira

Noiztik ateratzen zarete Korrikan?

Oin dala 22 urte, 1979xan urten genduan lehenengo eta aurtan ere urten gera. Osasuna dakagun artian jarraitxuko dogu.

Zergatik egiten duzue korrika?

Lehenengo urtian soziedade eta taldiek egin zitxuen kilometruak. Hirurok urten ginan, bakoitzak bere elkartia representatzen kilometro bana egin genduan. Handik aurrera Euskadiko Kutxak finantziau zaban kilometrua eta hiruron artian kilometro bakarria egiten segidu genduan, gaur arte.

Zer aldatu da hasierako Korrikatik hona?

Lehenengo urtian bakoitzak kilometrua bakarrik egin bihar izan genduan. Azkarateraino io ginan, baina testigua eruan bihar genduanok eta autokuak besterik ez. Oin gero eta jende gehixaok hartzen dau parte, eta elkartiak ere gehixao dianez kilometruak motzao eitzen ditxue.



Gogoan al daukazu anekdota berezirik?

Oin dala urte batzuk hiruroi omenajia egin ziguten eta Gotzon Garate ere etorri zan. Hainbeste urtian Korrikan parte hartu ostian ilusivakin hartu genduan.

Pili, Maite, Ane eta Arantzak AEK-ko lekukoa eraman zuten



Lekukoa eraman duzuen lehen aldia izan al da?

Nik (Arantza) Gernika aldian eraman naban behin, baina bestela hemen lehenengo bider izan da. AEKko ikasliak lanian zaenez ez zakaten astirik Korrikan alde dirua batzeko eta gu lan horretan ibili ginan. Beste urte batzutan ikasliek eruan izan dabe, baina aurtan guri tokau jaku. Hasieran Iotsa piska bat eman zigun baina pozik hartu dogu parte.

Entrenamendu berezirik egin al zenuten?

Pasiatzera juten gera, baina ez da berdina pasiaran edo korrika ibiltzia. Poliki etorriko ziala uste genduan, baina momentu batian pankartakuek aurretik eruan bihar gintxuela ere pentsatzera ailegau ginan.

Nolakoa iruditu zaizue herritarrek aurtan Korrikari eman dioten erantzuna?

Orokorrian jarrera baikorra erakutsi dabe. Dirua batzen ibili geranian ondo hartu gaitxue. Egunian bertan gu Sigman egon ginan jendia noiz helduko zain, baina giro politxa sortu zan eta jendiak parte hartu zaban.

Txirrindulariak karreterako ahulenak direla denen ahotan dabil azkenaldian

ERRESPETATZEN AL DITUZU TXIRRINDULARIAN AUTOAN ZOAZENEAN?



MIKEL AIZPITARTE
33 urte, espezialista

Bai, gutxienez tnetro eta erdiko tartia lagatzen dot, eta ziklistak badaoz, itxoin. Ni bizikletan ibiltzen **naiz eta badao** errespetatzen ez gaitxuan jendia.

MARISA SOLARES
39 urte, ingeles irakaslea

Bai, baina batzuetan binaka joaten dira eta hori problematikoa da. Beraien aldetik ere zerbait egin beharko lukete txirrindulariek.




AINHOA LODOSO
31 urte, kazetaria

Ahalegintzen naiz errespetatzen. Frenau eta arraixa diskontinua agertu arte itxointzen dot. Entzuten **dian gauzekin** konziente naiz dauan arriskuaz.

JUAN CARLOS MUGARZA
38 urte, sukaldaria

Normalean bai. Baina askotan txirrindulariak banaka edo binaka ez dia juten eta bidia oztopatzen dabe. Eurek ere ez dake errespeto haundirik ibiltzeko orduan.



JUAN LUIS SARRIUGARTE
47 urte, elektrizista

Normalian bai. Baina ziklistek eurek ere ez dabe hainbeste errespetatzen. Danetarikuak daoz baina batzuk hiruak ere juten dia.

PASCUAL MOLINA
55 urte, metaleko langilea

Bai, saiatzen naiz. Orokorrean gidariok errespetatzen ditugu, baina noiz edo noiz denok aurreratu ditugu txirrindulariak modu txarrean.



ibot 4et/lt4 ebo,

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A

Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA

jj Anchtistegui s.a.
ZERAMIKAK

ESPOSIZIOA, ALMAZENA ETa BULEGOA:

Olaso industrialdea
Olasope, 5
20870 ELGOIBAR

Tel: 943 74 33 44 74 23 71 - Faxa: 943 74 37 11

Euskara Batzordeak egindako ikerketaren arabera euskararen erabilerak behera egin du aurten Elgoibarren

Ikastetxeetan eta jolaslekuetan erabiltzen da gehien eta txikiteoan gutxien

Hizkuntza bat zenbat eta gehiago erabili orduan eta osasuntsuago dagoela esan ohi da. Korrikak aste honetan bertan erakutsi digu herrian euskarak baduela jarraitzaileak. Baina Elgoibarko kaleetan euskaraz zenbateraino hitz egiten den neurtzeko azterketa egin du Udaleko Euskara Batzordeak. Neurketa 6.356 elgoibartarren artean egin ostean, %37,4ak euskaraz hitz egiten duela ikusi dute, iaz baino %0,9 gutxiago.

Datuak adinaren arabera sailkatuz gero euskara haurren hizkuntza dela dirudi. Helduek, berriz, oso gubd erabiltzen dute.

Gero ega gehiago erabiltzen da euskara gazteen artean. Helduen erabilera berriz, jaitsi egin da

Giro ezberdinak neurtu ahal izateko asteko sei egun aukeratu dituzte eta bost elgoibartar herriko hainbat zonaldeetan datu bilketa egiten aritu dira. Ondorioz, euskara gehien ikastetxeetan eta jolaslekuetan erabiltzen dela ikusi dute; eta gutxien, berriz, txikiteoan. Azken honetan jaitsiera

nabarmena izan da %33tik %24,4ra. Gazteen artean eta erosketa giroan, aldiz, igoera izan da.

Haurren erabilera egonkorra

Azken hamar urteotako datuak konparatuz haurren erabilerak 1998tik hona behera egin duela ikus daiteke, baina 1996tik 1997ra izugarrizko igoera izan zuela kontutan hartuz, nolabait egonkor bihurtu dela esan dezakegu. Bestalde, gazteen erabilerak piskanaka gorantz egin du eta helduenak behera. Azkenik, zaharren erabilera maila asko jaitsi dela esan behar da.

ERABILPEN DATUAK AZKEN 10 URTEETAN


	90	91	93	94	95	96	97	98	00	01
Haurrak (0-14 urte)	%25,7	%40,5	%40,9	%47,3	%58,9	%52,9	%68,6	%68	%66,7	%63
Gazteak (15-24 urte)	%16,4	%22	%15,3	%30	%25,2	%29,5	%39,3	%39,1	%37,6	%40
Helduak (25-64 urte)	%14,9	%19	%18,7	%23,3	%23,4	%23,3	%26,7	%29,8	%27,6	%25,8
Zaharrak (65 urtetik gora)	%36,7	%43,8	%44,6	%41,5	%39,4	%40,8	%35,1	%40,6	%33,2	%33,2
(HITIRIA	%20	%25,2	%25,4	%31,8	%31,9	%31,7	%37	%40,3	%38,3	%37,4



URKIIDE1 AHOLKULARITZA
KONTABILITATE
LAN
FISKAL

Kalamua, 12 « ELGOIBAR
Tel-Faxa: 943 74 18 91

ARTFORD
ASEGURUAK



943

IriondoTABELIZNA

Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu
eta asteburuetan 9:00etan

Pedro Muguruza, 2 • Tel: 943 74 00 15

Cordon, Vilarchao, c.b.

IDEKORAZIOA

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK,
SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK,
GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke, 7 behe. Tel: 943 74 28 74-74 05 70



'Elgoibartarrek 76 informazio eskari egin dituzte etxebizitzak berritzeko

Debegesa elkarteak Debabarreneko etxebizitzak eta eraikuntzak berritzeko plana jarri zuen martxan, eta urtebete pasa ostean lehen balorazioa egin dute. Guztira, 442 kontsulta jaso dituzte bailaran, 222 partikularrek eginak eta bizilagunen elkarteetatik etorri dira gainontzeko 220ak. Kontsultak egiteaz gain, batzuk hasi dira jadanik berrikuntza lanetan. Elgoibartik egindako informazio eskariak 76 izan dira, 54 bizilagunen komunitateetatik eta partikularrek egindakoak, 22. "Hobetu zure etxea barrutik... eta kanpotik!" lelopean beste urtebetez luzatuko dute kanpaina. Dena den, Debegesako arduradunen esanetan, "lehen fase hau arrakastatsua izan da, bizilagun askok azaldu baitu etxebizitzak eta eraikinak berritzeko interesa".



Arrieta famdiako 40 lagun elkartu ziren larunbatean Aittolan

Argazkikoak Arrieta familiako lehengusu-lehengusinak dira. Joan den martxoaren 31n 40 senide inguru elkartu ziren Aittolan familia giroan bazkaltzeko. Irabaneta baserriko Abelino Arrieta, Karkizao baserriko Luzia Etxanizekin ezkondu eta 6 seme-alaba izan zituzten. Argazkikoak hauen ondorengoak dira, bilobak, hain zuzen ere. Arrietatarrek etorkizuna ziurtatuta izango dute behintzat.

Bonba abisua izan zen asteazken eguerdian, hilaren 4an, Mekanikan

Elgoibarko Institutuak Arregitorren daukan Mekanikako ikastetxean bonba abisua izan zen joan den asteazkenean, apirilaren 4an. 12:00ak aldera Gurutze Gorrian jasotako dei batek bonbaren berri eman zuen eta Ertzainek ikastetxea mihatu ostean abisua faltsua zela ikusi zuten. 14:00ak arte ikasle, irakasle eta Mekanikako gainontzeko langileak kanpoan egon ziren, prebentzio neurri moduan. Dena den, gertatutakoa ikusita Ertzaintzatik abisua ez dela batere serioa izan esan digute.



tMHko ingeniaria titulua ofizialdu egin dute Frantzian

Frantziako Hezkuntza Ministerioak ofizialki onartu du Elgoibarko IMHn eskaintzen duen ingeniarien prestakuntza. IMHk urtarrilaren 9an aurkeztu zuen txandakako ingeniari-titulua ofizialdu ahal izateko eskaera. Horrela, 1996. urtean ingeniari-titulua ematen hasi zenetik egindako eskaeren prozesu luzea amaitzen da. IMHko ingeniari-titulua duen ezaugarri bereziena lehenengo egunetik ikaslea langile moduan ere hezitzen dela da. Bere prestakuntza ikasgelan eta enpresan garatzen da hiru urtetan zehar.

Farmazia - okindegia

EGUNEZ	GAUEZ	EGUNEZ	GAUEZ
7 Etxeberria' (Errosario kalean)	Escala	14 Bidasolo	Bidasolo
8 Etxeberria (Errosorio kalean)	Escala	15 Bidasolo	Bidasolo
9 Bidasolo	Bidasolo	16 Bidasolo	Bidasolo
10 Etxeberria (Santa Ano kalean)	Etxeberria	17 Bidasolo	Bidasolo
11 Fernandez	Fernandez	18 Etxeberria	Etxeberria
12 Fernandez	Fernandez	ISanto Ancr bleon)	
13 Fernandez	Fernandez	19 Fernandez	Fernandez
		20 Yudego	Yudego

FARMAZIAK

ESCAIA, Rekalde, 1 Soraluze
Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ,
Herriko enporantzu 4, Garagorzo.
Tel: 943 75 61 42

ZABAIETA, Kalebarren, 9 Soraluze
Tel: 943 75 13 84

*(eguerdiko 2ak artel


OKINDEGIA

8 igandea Fotero
12 osteguna Ibarrenea
13 ostirala Idarraga
15 igandea D. Mercedes
16 astelehena Eizagirre

ETXEBERRIA

hnetaz zervitza
C)SOA eta ORDUKOA

KUTXAK TRASLADOAK .KOROAK



NORBANAKOEI
eta KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak.

Donostia eta
probintziako
eritexetan ere
bai.

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56
(Mobila) 608 77 07 01



MARTXOA

Luis Migel Puerta Balmaseda
Martxoak 9

Ane San Martin Iriondo
Martxoak 27

Josu Mngica Lacha eta
Maria-Isabel Azpeleta Iturricastillo
Martxoak 24

HILDAKORK

Jose Mari Bastida Arakistain
93 urte (Martxoak 5)

Jose Migel San NIartin Etxeberria
49 urte (Martxoak 7)

Itziar Astigarraga Astigarraga
44 urte (Martxoak 11)

Jose Luis Eizagirre Odriozola
57 urte (Martxoak 17)

Mari Tere Elgoro-Iribe Gurrutxaga
70 urte (Martxoak 25)

NIariano Toninos Garcia
59 urte (Martxoak 29)

Maria Gonzalez Trigo
60 urte (Martxoak 30)

euskaltegia

arigera

gaia

1 BARNETEGIAK

Euskaltegietan eskaintzen diren udako ikastaroez gain, euskara ikasteko aukera desberdinak aurki ditzakegu, barnetegiak eta egonaldiak familia euskaldunetan. Nahiz eta barnetegi batzuk urte osoan irekita egon, euskara ikasle gehienek opor garaia, hau da, uztalla eta abuztua, aprobetxatzen dute barnetegira joateko.

Barnetegiaren helburu nagusia mintzamena lantzea da eta euskara maila desberdinetako ikasleentzat antolatzen dira. 2, 3 edo 4 astetan urrats bereko euskara ikasle talde bat etxe batean biltzen da euskara ikasteko. Goizez klaseak ematen dira, baina hauen gain denetarako astia egoten da barnetegiaren: mangoak, kultur eskaintzak, parranda, tailerrak (antzerkia, ipuinak, eskulanak, ...) egiten dituzte.

Barnetegiak eta familia euskaldunetan egonaldiak ingurune euskaldunetan kokatuta dauden he-

Klaseez gain, txangoak, kultur eskaintzak, tailerrak eta parrandak ere egiten dira



rrietan antolatzen dira. Horrela, ikasleak barnetegitik ineten direnean ere euskaraz, hitz egiteko aukera izaten dute. Euskal Herriko 30 herri ingurutan aurki ditzakegu euskaltegi desberdinek antolatutako barnetegiak.

Familientzako barnetegiak ere antolatzen dira guraso eta seme-alaben artean euskaraz aritzeko ohitura sendotzeko. Gurasoak eskolan dauden bitartean seme-alabak begirale-hezitzaileekin egoten dira.

Egonaldiak familia euskaldunetan Aukera hau 8. urratetik gorako

4 ELGOIBARKO UDALAREN DIRULAGUNTZAK

Egonaldiaren prezioak, ezberdintasunak dauden arren, 35.000 eta 75.000 pezeta bitartekoak izaten dira. Honek suposatzen duen gastua kontuan izanik, Elgoibarko Irdalak urtero ematen ditu dirulaguntzak barnetegira joaten diren ikasle eta langabetuentzat:

- **Barnetegiko gastua 100.000 pezetatik beherakoa denean, % 40a ordaintzen da, gehienez 30.000 pezeta.**
- **100.000 pezetatik gorako gastuetan, Udaleko Euskara Batzordeak erabakitzen du L zer dirulaguntza eman.**

ikasleentzat da. Ikasleak hilabete edo bi hilabete egiteko aukera du uztail, abuzni edo irailean. Familiaren eguneroko harremanetarako hizkuntza euskara izaten da eta ikaslea familiako kide baten moduan bizi da. Ez da lan egitera behartuta egoten, baina ikasleak hala nahi badu, eguneroko eginkizunetan parte hartu ahal izango du.

ikasleekin berbetan

Amoio Trucios Erdi moilo



Amaia Trucios duela 8 urte hasi zen euskaltegian eta 1. eta 2. mailak egin ondoren, laga egin zuen, lanak eta dituen bi umeek denbora gehiago eskatzen zleten-eta. Berak dioenez, orain lasaiago dabil eta berriro euskara ikasten hasteko aukera ikusi du.

M. Sol Colmero Goi moilo

M² Sol Cohnenerok ez zekien euskaraz hitz egiten eta inguruko jendearekin eguneroko bizimodua egiteko ez omen zeukan euskararen beharrik ere. Baina bazuen barruan horrelako grina eta duela bost urte, ikastea pentsatu zuen. Orain euskaltegian bakarrik hitz egiten du euskaraz, lanean, etxean edo bere inguruko lagunekin erdaraz egiten baitu. Haia ere, gustatu egiten zaio euskara ikastea eta jarraitzea pentsatu du.

~11~11isti

I Lotsa ematen al dizu euskaraz hitz egiteak? Batzuekin hitz egiterakoan, bai. Pertsona batzuk barre egiten dute eta orduan lotsa ematen dit, baina beste hatzuekin ez. Orokorrean, Elgoibarren ez daukat inolako arazorik, jende atsegina dago-eta.


I Zaila egin al zaizu euskara ikastea? Gramatikan, adibidez, ez daukat arazorik, baina hitz egiterakoan zafiagoa iruditzen zait, oso urduri jartzen naiz-eta.

Esfortzu handia al da zuretzat euskaltegira joatea? Momentu honetan bai, denbora gutxi daukat-eta. Goizean euskaltegira joaten naiz eta arratsaldean berri, Mallabiaraino joan behar izaten dut, han egiten dut lan-eta, Azkenerako, kostatu egiten zait baina gustura nago eta jarraituko dut.

I Batua ala euskara herrikoia nahiago duzu? Elgoibarko euskara egitea gustatuko litzaidake, baina oraingoz, nahikoa daukat batuarekin.

IDenda batera sartzen zarenean, euskaraz ala erderaz hitz egiten duzu? Agurtu, euskaraz agurtzen dut eta dendariak euskaraz baldin badaki, nik ere jarraitzen diot baina normalean, erdaraz egiten dut.

Atsegin al duzu norbaitek zerbait gaizki esandakoan zuzentzea? Bai, zuzentzea bai, baina batzuk zuzendu beharrean, esan egiten dizute eta hori ez zait gustatzen. Adibidez, esaldi bat esaten ari naiz eta aditza ezin zait atera. Amorrua ematen dit norhait aurreratu eta aditza esateak,



/ Zer esaten dizute umeek ikastera zoazela diezunean? Zazpi urte ditu batek eta eguna nire okerrak zuzentzen pasatzen du.

O Alabekin euskaraz egiten al duzu? Bai beraiekin eta baita senarrarekin ere. Etxean euskaraz hitz egiten dugu. Bestela, kalean lagun batekin bakarrik egiten dut euskaraz; gainontzekoekin, oraindik ere, lotsa ematen dit.

|| NoIa animatuko zenuke euskara ikastea nahi duen pertsona bat? Merezi duela esango nioke. Adinak ez dio axola, inoiz ez da berandu.

I Zer da euskararen alde egin dezakezun gauzarik onena? Dakiten guztiek hitz egitea. Gero, beste gauza batzuen artean, ekitaldi gehiago arttolatuko nituzke euskaraz; eta umeak, eskolan ez ezik, kalean ere euskaraz hitz egitera ohituko nituzke.

I Zerbait idatzi behar duzunean, euskaraz idazten al duzu? Ez, normalean ez, baina euskaltegiko laguntzarekin, piskanaka hasi naiz horretan ere. Orain, asteko erosketen zerrenda euskaraz idazten saiatzen naiz. Hasteko modu bat da.

I Korrikaren parte hartu al zenuen? "Korrika Txikian" hartu nuen parte, alabarekin batera.

I Haserretutakoan euskaraz irteten zalzun lehen gauza? "Etorri hona oraintxe bertan".



KORRIKA etorri da KORRIKA joan da

20 urte pasatu dira lagunarteko jatordu baten inguruan sortutako ideia, "KORRIKA EUSKAL HERRIA" lelopean lehen KORRIKA gauzatu zenetik. Harrezkero, AEK euskaltegiko ikasle eta ikasle ohiak hamaikatxo lanetan parte hartu behar izaten du gure herritik pasatzen denerako guztia prest izateko; batetik, KORRIKA

KULTURALeko ekitaldiak direla, diru eskaerak egiteko sobreak prestatu, diru eskaerak egin, propaganda jarri, banderinak egin... Dena den, lanaz gain, euskara maitatzeko ilusioz, bete ere egiten gaitu. Harritu arren, aurtengoa ere etorri orduko joan zaigu eta oraingoan ere "Mundu bat euskarara bilduta". Hurrengoa, bi urte barru. Denok espero zaituztegu!



Udal Euskaltegiko 19 ikasle eta irakaslek Oriora txangoa

egin zuten martxoaren 31n eta apirilaren lean

Udal Euskaltegikoek denbora ondo pasatzeko modua aurkitu zuten pasa den asteburuan. Irakasleen eta ikasleen artean, 19 lagun bildu ziren guztira Orioko Txurruka aterpetetxean. Bertan, Orioko Arraun Kluba eta Agorregiko burdinola bisitatu zituzten. Irteera honen helburua ikasleengan euskararen erabilera sustatzea da. Udal Euskaltegitik esan digutenez, "oso esperientzia ona izan da".

KONTU ZAHARRAK



- 1970 inguruan Elgoibarko Izarraren gau-eskolan Ikastolako irakasleak hasi ziren euskara erakusten parrokiako lokaletan.

- 1974-75ean hasi ziren gau-eskolako irakasleak kobratzen, ordura arteko irakasleek borondate hutsez egiten zuten lan hau, baina, aldaketa honekin seriotasun eta profesionaltasun kutsua eman nahi izan zioten gau-eskolari.

- 1976an Ikastola berria eraiki zenean, gau-eskola ere bertara pasatu zen. Garai honetan 200 ikaslelik gora ari omen ziren euskara ikasten.

- Ordura arte, gau-eskola izenak dioen bezala eskolak gabek izaten ziren, baina 1976an bazkal ostean ere ematen hasi ziren eta 1980tik aurrera goizez ere bai. Bestalde, 1980an asteen sei orduko talde bat sortu zen, ordura arte asteen hiru ordu besterik ez zituzten jasotzen ikasleek.

Abc

"OKERRAK ZUZENTZEN" LEHIAKETA

1. Egun bertan erabakiko dut nora joan.
2. Kilo bat sagar, mesedez.
3. Jon, laga ikusi erretratua.
4. Jango al duzu okela pixka bat?
5. Merkatu Plazatik Maltzagararte joan nintzen Korrikarekin.
6. Beste jertsea ez naiz probatu.
7. Jende asko egon al da zinean?
8. Zenbat liburu erosi dituzu?

1|111111111111r

Zortzi esaldi hauetan, 4 zuzen daude eta beste 4 okerrak dira. Lehiaketan parte hartu nahi baduzu, okerrak zein diren asmatu eta zuzen idatzi behar dituzu. Okerrak zuzendu ostean, maztu papera marra etenetik eta bidali honako helbidera apirilaren 27a baino lehen: Arigero proiektua. Ubitarte 4, behea 20870 Elgoibar. Euskara ikasleok euskaltegiaren ere entrega dezakezue.

- 1.....
- 2.....
- 3.....
- 4.....

Izen abizenak
Telefonoa

Parte hartzen duzuenon artean SARI BAT zozketatuko dugu!

Uda honetan bernetegira joateko osmorik ba oi duzu?



PEPI CALLEJA

Ez dut joateko asmorik. Ez naiz behin ere izan, baina ez gogorik ez dudalako, ezin dudalako baizik. Ni neguan joan naiteke, baina horretarako ez clago aukerarik, udan izaten dira-eta. Ahal cludanean joango naiz.



ROBERTO MIGUEZ

Bai. Iaz, bi astetan egon nintzen Lesakan eta aurten ere hini astetarako joateko asmoa daukat. Oso giro ona egoten da eta euskaltegian ikasten duzuna erabiltzeko lekurik onena da.



IÑAKI RAIGOSO

Asmoa eta gogoia baditut baina lana dela-eta, ez dakit joan ahal izango naizen. Ez naiz inoiz egon, baina egon direnen esperientziak entzun ditut eta joateko gogoia dut.



EMILIANO ANTON

Bai, bernetegiren batera joateko asmoa dut, baina oraindik ez dakit nora. Duela bi urte Leitzan egon nintzen 15 egunetan eta oso ondo zegoela iruditu zitzaidan. Berriro joatea gustatuko litzaidake.

erdoldunok izandoko EUSKAIDUNAK

Josean Gomez duela bi urte hasi zen euskara ikasten eta gaur egun ere horretan jarri da. Orain EGA taldean dago eta aurteranizean ere euskarako eskolekin jarraitzeko asmoa du, "ez dakit noiz arte jarraituko dudan, hori lanaren arabera ikusi beharko da. Momentuan, oso gustura nabil. Inork behartu gabe joaten naiz eta hori nabaritu egiten da", eson digu. Gustukoa dela esateaz gain, bere lanerako, administrazio publikoan egiten baitu lan, beharrezkoa ikusi omen zuen

euskara ikastea:

"Eskaerei-eta erantzuteko euskara maila hobetzea beharrezkoa da. Gainera, badira arrazoi gehiago ere: Hasteko, Euskal Herrian bizi naiz eta hemen euskaraz hitz egiten da.

Bestalde, bi ume ditut eta txikitatik dakite euskara. Burura etortzen zitzaidan; haiek euskaraz dakite, eta nik ez?"

Euskara oso hizkuntza zaila dela aitortu digu eta letik 10era zailtasun mailari puntuazioa emateko eskatu diogunean, 10o emango liokeela esan digu. "Oso zaila da. Latina eta grekoa ere ikasi ditut eta latina zaila dela esaten dute baina honek behintzat bost deklinazio bakarrik ditu..."



Josean Gomez

AURREKO "OKERRAK ZUZENTZEN" LEHIAKETAKO ERANTZUNAK

2(' ESALDI OKERRAK

1. Zu zoroa zaude
4. Nola da zure etxea, handia ala txikia?
5. Gaur mendira goaz, zatoz gurekin?
7. Liburua Aitorreri eman nion

ERANTZUN ZUZENAK

1. **Zu** zoratuta zaude.
4. Nolakoa da zure etxea, handia ala txikia?
5. Gaur mendira goaz/joango gara, etorriko zara /bazatoz?
7. Liburua Aitorri eman nion.



IRA.BAZLEA

ENERITZ URIGOITIA da

Sarlio: Bi pertsonarentzat afaria
Toletxe tabernan

nola ALDATU diren gauzak!



1953. urtea baino lehenagokoa da goian ikusten duzuen argazkia. Erretratuan 1 zenbakiarekin azaltzen den etxea, Txankakua jatetxea da. Zubi ondoan, 2 zenbakiarekin agertzen dena, San Salbadorko ermita. Erretratuan teiltua falta zaio. Eta, 3 zenbakian mekanikaka tailerra ikus daiteke, "Ilijos de San Martin" izenez ezagutzen zena. Atzean Santa Klarako konbentua dago. Gaur egun, dorrea bakarrik geratzen da, mojen egoitza atzeratu egin zuten-eta.



1955ean inauguratu zuten bide berria. 1953an hasi ziren lanekin eta bi urte beranduago ireki zuten pasabidea. Bide honetan bere autoarekin pasatu zen lehenengo pertsona Inazio Ma Arrillaga sendagile ospetsua izan zen.

Gaur egun, guztia aldatua dago eta erretratu zahar honetatik Santa Klarako doneak bakarrik irauten du. Errekako presatxoia ere ez dago.

Juanito Gorostiza

00SW

OPor batzuk hartzen baditugu?

Salou

Apihilaren letik 22ra.
610111. 2/4 apartanreatilan

5.625

Pta./pertsomake

Londres

Apiptlaren 12tik 16ra. 4 gau
gesartarskin + begazkina

53.300

Palpertsanaka (Tasak aparte)

Erroma

ApiPilaree 12tik 16Pa. 4 gau
4* Hatela. Gesariekirt

99.475

Pta./pertsosaaka (Tasak aparte)

L.14ECOS

Apihilaren 16tik 22pa.
Autobusez Gasartak barne.
4x4 hasamortuau. Mappakeeh
eta Rahafera bisita gidatuak.

60.570

Ptalpertsanako

Praga

Aprilaren 11 tik 1 Gra.
3* Hatala. liegarktaez Hilbatik.
Gasariak ata
bisita gitiatita barne.

65.700

Pta.lpeptsanaka (Tasak aparte)

/444 5,144444.4441

6,144444.4441 mottl4m e444;44/44

Prezio onak baino askoz ere gehiago

EROSK; BIDAIAK

SAN BARTOLOME, 11 • TEL. 943 744 651



Jasone Osoro

trakurri duzun azken liburua?

Xabier Etxeberrian "Egun denak ez dira berdinak" Idazie bat

Quim Monzo

Nori oparituko zenioke zure liburua?

Bizitza piska bat korapilotsua izatia gustatzen jakonari.

Zein nobelatako protagonista izango zinateke?

"El Refrato da Dorian Grey" nobelako protagonistarekin e[korriketa bat izango nuke gustura.

Gustura askatuko zenukeen korapiloa.

Zoriontasuna oztopatzen duen edozein korapilo.

nGizon-e-rakuneen arteko harremana ca gehixen erakartzen nauan gaixa"

"Tentazioak" ipuin bildumarekin fortutako arrakastaren ondoren "Korapiloak" km berriarekin datorkigu Jasone Osoro. Kazetaria eta gidoigilea da, eta hcrinbat komunikabidetan aritu ostean gaur egun ETBko "Sorginen Laraiza" programan eta hasiberria den "Hasiberriak" teleailean dihardu. igariza bekaren laguniaz idatzitako liburua hau hamazazpi ipuinez eta beste hainbeste poemaz osatua dago. Egunerokotasuna eta absurdua korapilatzen dira lasone Osororen lan berri honetan. Egilea bere egunerokotasunetik atera eta gure artera ekarri dugu liburuari buruz berba egitera.

- **"Korapiloak" liburua kaleratu berri duzu. "Tentazioak" lanak izan zuen harrera bera izatea espero al duzu?**

"Tentazioak" publikatzea arrakasta izan zan, "salto al vado" modukua. Bigarrenakin kezka gehixao euki nitxuan, baina konformauko nintzake "Tentazioak" irakutTi zaheneri eta gustau jakueneri "Korapiloak" irakurri eta gustatziakin.

- **Zer da garrantzitsuagoa sariak irabaztea ala zure lana argitaratuta ikustea?**

Lana, Igartza bekara ez naban sarixa jasotzeko asmuarekin presentau. Bestela ere hanakan proiektua, baina nahiko alperra naiz idazteko eta beka honekin urtebeteko epia eman ziaten lana amaitzeko, eta hori presio edo akuilu bat izan da.

- **Beraz, idazteko disziplina beharrezkoa da, baina zer gehiago behar da ondo idazteko?**

Disziplina aso inportantia da. Sormena gimnasia modukua da, zenbat eta gehixao egin orduan eta errezaua da. Egun txarrak izan arren, zenbat eta gehixao idatzi orduan eta hobeto idazten da. Irudimenak ere garrantzi haundixa daka idazteko.

- **Orain arte ipuinak izan dira zure lanen ardatza. "Korapiloak" bilduman poemak tartekatatu dituzu. Noizko nobela bat?**

"Tentazioak" argi eta garbi ipuin lihuru bat zan. Oingo lanian ipuinez gain poemak ere hadaude. eta ipuinak izan arren loturia badakate beraien artian.

"Sormena gimnasia modukua da, zenbat eta gehixao landu orduan eta errezaua da"

Ipuinetan tartekau eta errepikatzen dian elementuak bilau nitxuan. Neurri batian nobela modukua da. Soka bera osatzen daben korapiluak dia ipuinak. Buruan badakat idea bat eta gustauko jatan hirugarrena eleberri bat izatia.

- **Gizon-emakume arteko harremanak dira hizpide zure lan berrian. Zer dela eta aukeratu duzu gai hau?**

Gehixen erakartzen nauan gaixa dalako. Askotan gaixak aukeratzen zaitxu zu. Gaixak eguneroko bizitzatik hartzen ditzut, edozein erreferentzia izan leike baliagarria. Irudimena neurri batian hori da, esponja moduko bat izan eta inguruan pasatzen dan guztia xurgatu eta gero norbere erara moldatzia. Nik buruan gordetzen ditzut ideak eta gero etxera ailegautakuan apuntau.

- **Nola korapila daiteke irakurlea zure liburu herriarekin?**

Azala erakargarria eitia nahi izan dogu, banuan etorriko zana adieraztia. Bi pertsona biluztu eta korapilau egin genitxuan. Barruko ipuinak korapiluak dia eta korapilo horiekin istorixa bat biluzten da. Sentimentuak, zeluak, maitasuna, pasiva, gorrotua, erotismtta... gustatzen jakozenak hrrek danak aurkittukodittu liburuan.

"El hombre que confundio a su mujer con un sombrero" lana eskainiko du "Txalo" antzerki taldeak gaur, ostirala, Herriko Antzokian
Gaixotasun neurologikoetan oinarritutako obra zuzentzen du Ramon Bareak



Aktoreen zuzeneko lanaz gain, irudiak ikusi eta zuzeneko musika entzun ahal izango dira

"Txalo" taldeak "El hombre que confundia a su nwier con un sombrero" lana taularatuko du gaur, ostirala, apirilak 6, gaueko 22:30ean Herriko Antzokian. Izenburuak garbi rdierazten duenez, erdarazko bertsoia antzetzuko dute Elgoibarren. Oliver Sacks neurologoaren izen bereko liburuan oinarritutako Peter Brooken lana da.

Gm aioxotasun neurologikoen mundu arraroan galdutako gaixoen historia-medikoetan oinarritzen da antzezlanaz. Gaixoen oroimena galdu dute eta baita beraien iragana ere, ez dira gai familiako kideak edo egunero erabili ohi dituzten tresnak ezagutzeko. Atzeratu mentalizat hartu dituzte, baina barnean doai artistiko zein zientifikoak dauzkate. Guztira 20 kasutik gora azalduko dira taula gainean, eta aktoreek mediku zein gaixoen paperak jokatu dituzte Ramon Barearen zuzendaritzapean.

Aktoreen zuzeneko lanaz gain, pantaila handi batean proiektatuko dituzten irudiek ere gozatu ahal izango du ikusleak. Zuzeneko

musikarik ere egongo da, klarineta joko baitute obrak irauten duen bitartean.

Txankakuaren zozketa

Beraz, antzerkia gogoko duzuenok, gaur gaueko 22:30ean duzue aukera Herriko Antzokian. Bestalde, Txankakua, Merkatari eta Zerbitzu Elkarteak jakinarazi nahi du, Udaleko Kultura Sailak nagusientzat antolatzen duen antzerki bakoitzean, 10.000 pezetako erosketa txeketa baten zozketa egingo duela. Beraz, emanaldia amaitu arte gorde behar da sarrera, eta obra amaitzean ateratzen den zenbakia zuenarekin bat badator elkarteko edozein dendatan aldatu ahal izango duzue txeketa.




Zulagailu sakonak

Autonomia, 1• 174 posta kutxatila • Tel. eta Faxe: 943 74 32 54
Mebila: 809 929 588 • 20879 ELGOIHAR

CIERKI 1GOGAILUAK

j Urrutira deitu gabe bertakook segituan
konponduko dizugu igogailua

F 7 943 82 01 09 t' Faxe: 943 82 01 62
indalezio Ojanguren 2, beheka 111 20600 EIBAR




likloturisten irteera apirilaren 8an, domekan

Elgoibarko Lagun Taldeak antolatuta, datorren domekan, apirilaren 8an, 12. zikloturisten irteera izango da. Plaza Handitik irtingo dira goizeko 9:00etan, eta honakoa izango da egingo duten ibildibea: Elgoibar, Deba, Itziar, Zumaia, Getaria, Zarautz, Orio, Andaiza, Aia, Zarautz, Zumaia, Itziar, Deba eta Elgoibar. Guztira 103 km. dira. Nahi duen edonork har dezake parte.

Maialen Mora eta Xabier Gonzalez Lutxa Libreko Euskadiko Ixapeldun

Euskadiko Lutxa Libre Txapelketa Gasteizko Abechuko kiroldegian jokatu zen pasa den martxoaren 24an. Bertan 3 elgoibartar izan ziren: Maialen Mora, Josu Idiakez eta Xabier Gonzalez. Maialen Morak urrezko domina lortu zuen 63 kg-z azpiko kadete mailan. Lutxa librean parte hartzen zuen lehen aldia zela kontutan hartuta, ezin hobeto aritu zen Maialen. Gainera, kadete mailako Espainiako Txapeldunari irabazi zion. Xabier Gonzalezek ere urrea irabazi zuen 58 kg-z azpiko junior mailan. Josu Idiakezek, berriz, brontzea eskuratu zuen junior mailan 72



kg-tik beheragoko kategorian. Emaizta hauekin Murtzian jokatu diren Espainiako Txapelketan parte hartzeko eskubidea izango dute apirilaren 6, 7 eta 8an. Bestalde, Aitor Gonzalezek brontzezko domina eskuratu zuen Gasteizko San

Xabier Gonzalezek 58 Kg-z azpiko kategorian irabazi zuen urrea.

Viator Nazioarteko Judo Txapelketan. Aitor infantil mailan lehiatu zen. Txapelketa berean Josu Idiakezek 5. postuan amaitu zuen.

IMH-k Euskadiko Junior Txapelketako finala eta IMS-k Liga irabazteko aukera galdu zuten asteburuan



IMH Elgoibar Eskubaloitza Taldea

Pasa den asteburua ez da batera izan Elgoibarko eskubaloitza taldeentzat, batez ere, IMH eta IMS taldeentzat. "IMH Elgoibar" taldeak Euskadiko Junior Txapelketako finalaren bueltako partidua jokatu zuen Olaizaga kiroldegian. Joaneko partiduan 2 goleko errenta eskuratu zuten "Arabakan Gure" talde gasteiztarraren aurka, baina ez zen errenta nahikoa izan. Elgoibartarek 20 eta 23 galdu zuten barixakuan, martxoaren 30ean,

Olaizaga kiroldegian jokatuak partidua. Beraz, gol bateko aldeagatik galdu zuten finala.

"IMS Elgoibar" senior nesken taldeak, berriz, garrantzi handiko partidua jokatu zuen Ennuan, bertako taldearen aurka. Liga irabazteko aukerak zituzten elgoibartarek eta berdinketarekin nahikoa zuten beraien helburua lortzeko, baina tamalez 16 eta 15 galdu zuten. Elgoibartik zaletu asko inguratu zen Ermuara, baina burumakur izuzuli behar izan zuten.

Zur Ta Lur Areto Futbol Taldeak puntu bat behar du liga irabazteko



Euskal Ligan ari den "Zur Ta Lur" areto futbol taldeak 5 eta 5 berdindu zuen Zamudioko Ibaizabal taldearen aurkako partidua pasa den asteburuan. Saillapen nagusiko lehen bi saillatuen arteko partidua izan zen eta lortutako puntuari esker elgoibartarrak Liga Txapelketa irabazteko puntu bakar baten faltan daude. Dena dela, jadanik lortu dute mailaz igotzea, atzetik dauden taldeentzat matematikoki ezinezkoa baita elgoibartarrak gainditzea. Txapeldun izateko falta zaien puntua eskuratzeko aukera domekan, hilaren 8an, izango dute Olaizaga kiroldegian. Arrigorriagako "Gau Txori" taldearen aurka jokatuko dute partidua eguerdiko 12:15ean.

412 neska-mutilek hartu zuten parte 8. Haur Hrosean



Elgoibar eta Mendaroko 412 neska-mutilek hartu zuten parte Elgoibarko Ikastolak urtero antolatzen duen Haur Krosaren 8. edizioan. Egun eguzkitsua egin zuen domekan eta beroari egin behar izan zioten aurre korrikalari gaztetxoek. Hala ere, guztiek jaso zuten merezitako domina egindako esfortzuagatik. Adinaren arabera 4 ibilbide zeuden eta guztira 14 lasterketetan neurtu zituzten indarrak 6 urtetik 16 urtera bitarteko neska-mutilek. Adin bakoitzeko lehenengo neskek eta lehenengo mutilak trofeo bana jaso zuten. Ondoko taulan irabazleen izenak eta denborak agertzen dira.

1RABAZLEAK

Jaioturtea	Korrikalaria	Denbora	Jaioturtea	Korrikalaria	Denbora
94	Nora Santiago	1'25"	90	Unai Cabo	3'23"
94	Roke Ortuoste	1'22"	89	Oihana Perez	3'53"
93	Ane Urain	1'14"	89	Igor Ulibarri	3'30"
93	Julen Eteberria	1'17"	88	Lara Urain	5'57"
92	Nora Hadi	2'27"	88	Aitor Arrillaga	5'15"
92	Borja Diez	2'13"	87	Nerea Zubiaurre	5'46"
91	Nahia Abad	2'27"	87	Antton Alberdi	4'56"
91	Aitor Arrese	2'10'	85	Maite linares	6'55"
90	Maialen Salaberria	3'49"	86	Mikel De Pablo	4'59"

Janier Osoro sanndgehlarrak irahazi du Gipuzdano Hiru Txirlo Bolo Txapelketako lehen jardunaldia



Martxoaren 24an eman zitzaion hasiera Gipuzkoako Hiru Txirlo Bolo Txapelketari San Migelgo bolatokian. Guztira 80 pertsonak hartu zuten parte txapelketako lehen saioan. Elgoibartarrek etxean jokatzeko zutela aprobetxatu zuten eta Jabier Osoro sanmigeldarra izan zen irabazlea. Ilim tiralditan txirlo guztiak bota zituen, 9 txirlo, alegia. Bigarren sailkatua ere elgoibartarra izan zen, Jose Irusta, hain zuzen ere. Honek 8 txirlo bota zituen. Felix Gomez eibartarrak 7 txirlo bota zituen eta hirugarren sailkatu zen. Xabier Loiola elgoibartarrak ere 7 txirlo bota arren 5. postuarekin konformatu behar izan zuen. Guztira 18 herritar ari dira txapelketan parte hartzen 3 taldetan banatuta. Elgoibarren jahirilaren 21ean okatuko da hurrengo saioa, San Pedroko bolatokian.

EMAITZAK

Futbola

Oiartzun 3 — Haundi 0 (Pref.)
Intxurre 5 — Elgoibar 1 (1. erreg.)
Pedrusko 2 — Tolosaldea 1 (1. erreg.)
Elgoibar 0 — S. Herrera 0 (Oho. jub.)
Anaitasuna 2 Elgoibar 1 (1. kad.)
Elgoibar — Antiguoko 13 (Oho. inf.)

Esku pilota

Udaberri saria
Aranberri/Alberdi 4 (Bergara)
Agirrebeña/Iriondo 22

Ansola/Balzola 22
Dorronsoro/Imaz 1 (Ataun)

Dorronsoro/Imaz 7 (Ataun)
Ansola/Balzola 22

Eskubloia

IMH Elg. 20 — Arabakan Gure 23 (Junior mut.)
Aloña Mendi 27 — Pagoaga Elg. 11 (Kad. nesk.)
Tecnomeca Elg. 25 — Pulpo 23 (Kad. mut.)
Aloña Mendi 18 — Unceta Elg. 26 (Jub. nesk.)
Pneumax Elg. 19 Pulpo 23 (Jub. mut.)
Ermua 16 — IMS Elg. 15 (Senior nesk.)
Leizaran 25 — Tecnifuelle Elg. 17 (Senior mut.)
IMH Elg. 26 — Usurbil 26 (Senior mut.)

Areto Futbola

Ibaizabal 5- Zur Ta Lur 5 (Euskal Liga)
Iceberg 5 — Zur Ta Lur 1 (1. maila)

Idarraga kafeak 4. saria

HAUNDIko jokalaria erregularrena 00/01
JOKALARIA

PUNTUAK

1- Zulaika	34
2- Laskiba	26
3- Lander	22
4- Saiz	22
5- Izagirre	21
6- Alkorta	17
7- Loren	17
8- Garo	16
9- Gurrutxaga	16
10- Joseba	12
11- Portu	12
12- Mugika	

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 7

12:30 Elgoibar — Aldapetarrak (1. kad.)

16:30 Haundi — Beti Ona (Pret.)

18:15 Elgoibar — Euskalduna (1. erreg.)

Igandea, 8

11:00 Elgoibar — Aldapetarrak (Oho. Int.)

12:30 Elgoibar — Aurrera Vitoria (Neskak)

Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 7

16:00 Pagoaga Elg. — Arrate (Kad. nesk.)

17:30 Tecnifuelle Elg. — BKL.CAF. (Senior mut.)

19:00 Uncela Elg. — Aloña Mendi (Jub. nesk.)

Areto Futbola, Kiroldegian

Ostirala, 6

22:15 Zur Ta Lur — Cocinas Urarte (1. maila)

Igandea, 8

12:15 Zur Ta Lur — Gau Txori Arrigorriaga

(Euskal Liga)

Esku pilota, Ikastolan

Ostirala, 6

Debarroko Txapelketa

22:00 Elgoibar-Zurdola

rr erkatu txikia

Lana

ESKAERA

- Ernakumeak bere burua eskaintzen du etzeak edo bulegoak garbitzeko. li. ts **943 74 22 01**.
- Aste guztion zehar gauetan umeak zaintzeko presl nago. Tr **637 51 22 24**.

ESKARZZA

- Emakumea behar da ume bat zaintzeko. tr **619 18 78 09**
- *Mutil bat behar da tabernako arduraduna izateko. Kontratuarekin. Soldata, hitz egitekotan. TT 667 **52 57 81**
- Emakume bat behar da etxeko lanak egiteko asteko bi egunetan. tr **943741041**. (21:30etik aurrera delv).
- Asteburuetan tabernan lan egiteko neska behar da. Esperientziaduna. ti **943 74 37 71**.
- Kamareroa behar da ostiredetan eta larunbatetan lan egiteko, tr **943 74 39 25**,
- Arrasateko lanbide Hastapeneko Zenitoren batek mekanika gaia ernateko monitorea behar du goizetarako. FP II edukitzea eta tornuak eta fresadorak erabiltzen aditua izatea eskatzen da. ze **943 79 28 90**.
- Sukaldaria behar da jate txetxe baierako. tr **943 74 05 80**.
- Eusko Trenerako aforadoreak behar dira. s **944 43 18 00**.
- Perisonea bat behar da asteburuetan eta astean zehar arratsaldetan tabernan lan egiteko. Tr **943 74 28 97**.
- Tabernan basoak jasotzeko eta diskoak ipintzeko pertsona behar da. Baita asiean zehar lan egiteko kamareroa/are. tr **943 74 42 65**
- Larunbatetan tabernan lan egiteko neska gaztea eta ibicura onekoa behar da. Esperientzia baloratuko da. tr **943 74 37 71**.

Partikularrak

- Kurtsoa aurrera doala eta atzean gelditzen ari zarela? Zatoz gugana eta lagun-iza eskainiko dizugu. Klase partikularrak 12 urtera arte. Eulali eta Bidatz. tr **943 74 10 44/ 943 74 34 99**.

Salerosketak

- Pastor aleman arrazako txakurkumeak salgai. tr 607 31 18 90.
- * Knaus markako karabana txiki bal salgai. Tr **607 39 86 13**. Iban.
- "Cama nido" Ixuria salgai. Azdan kajoia dugu. Prezioa erabakitzeke. tr **943 74 39 31**.
- Garbigalua saltzen dut eta honekin kafetera elektrikoa opariizen dut. st **943 74 39 75**. Miren.
- Autoa safgai. Renault 11, BI-AS. Kilometro gutxirekin. Zuria. Ongi zainclua eta merke. a- **943 T7 54 61**.
- *Deshumifikadorea salgai. Fagor DH 275. tr **616 09 38 92**.
- Marrazketarako mahaia salgai. "Oiz" modelo, 1700 X 1000. tr **943 74 20 80**.
- Eskiatzeko materiala saltzen dut. ar **943 74 39 65**.
- Kanpin denda egiten den karroa 3X4 m². 1,35eko bi gela, bai kajoiekin eta jangela bihurtzen dena salgai. sz **943 74 19 21**. Maite.
- Zubidun logela salgai. Bi ohe ditu. tr **943 74 22 84**.
- "Scooter" motoa salgai. Yamaha Siiden W50. Esireinatzeke dago. a **646 650 480**.

Etxebizitzak

Bestelakoak

- Martxoaren 1 Ban, goiz-eguerdi partean, eliza aurreko jarlekuetatik altxatzerakoan, kartera erori zikaidan. Aurkitu duenak deitu mesedez. a **943 74 05 31**.
- Eratzuna galdu nuen Artelxe auzoon. Hiru harri ditu eta barrualdean ").M.fla M.A.E. 26-10-49" ipintzen du. Aurkitu duenak dei dezala mesedez. a **943 74 20 49**. Jesus,
- Egunero joaten naiz Arrasatera efa kotxea konpartituko nuke. 8:00etatik 17:30era. (Flexible). tr **943 74 27 47**.
- "Caritas"-ek bi ume txiki batera eramanez aher izateko, "kobce capola"-ri ipinizen zaion aukitxoa behar du. tr **943 74 15 09**.
- Erlojuo galdu nuen martxoaren Sean Urasandiko "U" edo patinele pista inguruan. Tr **943 74 31 78**.
- Lepoko kate bat aurkitu dut Plaza Merkatu aurrean. BARRENEN laga dut.

- Pisua salgai Sania Ana kalean. Bi logela, sukaldea, bainua eta egongela, Altzariakin. Prezio interesgarria ist 658 71 59 32.
- Apartamentua salgai Luz Ardiden. tr 686 57 04 39
- Pisua behar dut alokairuan. Altzariakin. tr **659 60 36 96**.
- Pisua salgai Mendaron. Eguzkitsua da, logela guztiek kanpoaldera ematen dute. 3 logela, sukaldea, egongela eta bainua. 69 m². Te **943 75 60 99**. Itziar.
- 3 edo 4 logela diuen pisua erosiko nuke Elgoibarren. tr **626 23 75 70**.
- Etxebizitza salgai San Pedro kalean. Tr 943 74 **13 68**. (Gauze deitu).
- Pisua behar dut. Logela eta arropa garbitzeko eskubidearekin. Erdigunean. tr **943 74 42 92**.

Agurrak

Lokalak

- Lokala saltzen da Pedro Muguruza 10ean. 60-62 m², tr **943 74 06 85**.
- Lokol komertziala alokatzen da San Ana 1 ean. tr 943 74 **12 83**.

Garajeak

- Garaje itxia salgai Arregitorre kalean. Bi auto sartzeko lekua dago. Aukera ezinhobea. tr 943 74 00 09.
- Garaje plaza salgai Arregitorren. is **943 74 07 62**.

- Zorionak Mari Meireri bere lagun Conchi, Ainhoa, Itsaso eks losuren partez. Baita alaba Sheilari ere, hilaren 9an 12 urte beteko dituelako. Familiarekin egun zoragarriak pasa ditzazuela.
- Zorionak ido. Ze pentsatzen zundun ez ziñola ageriuko ala!! Nahiz eta asteartean 20 urte bete gaur ere zorionen zaitxugu. Koadrilakuen partez muxu haundi bat eta formal ibili, eh!!
- Zorionak Iñigo Garairi, apirilaren 3an 12 urte bete zizuelako. Ilcastolako 6. mailko begirale sekreluen partez.
- Eskerrik asko Oihana Perez eta Itxaso Lopezi larunbatean enirenatzeagatik. Bereingatik irobazi genuen eta eskubaloi-ko partidua. Ikastola C-koen partez.



"Memento"

Zuzenaria: Christopher Nolan.

Antzezleak: Guy Pearce, Carrie-Anne-Moss, Joe Pantoliano.

Kritikak eta publikoak goraiatu duten pelikula hau thriller "p, ikologik berritzailea eta gogorra da. Autorea 29 urteko gazte bat da, eta hauxe da bigarren filma. Bortxatzaile batek emakur bat hil du, eta bere senarrak mende hartu nahi du. Baina amnesia dauka: aspaldiko iragan n gertatutako gatt ondo gogoratzei4lbaina~, atzo gertatutakoa. Ainnesiari aurre egite sistema berezia asnatiko du: AinneSiak lagatuko butsunck tatuajeen eta polaro" argazkien bitartez beteko ditu. Publikoaren saria jaso zuen Sitges-ko Zinemaldi,



*Zorionak Oihaneri, hilaren 10ean 2 urte beteko dituelako. bxekoen partez segi horreloko ixinixaa eta alaia izaten.



*Zorionak Sergiori, gaur, hilaren 6an, 6 urte bete dituelako. Familiako eta lagun Anaren partez.



• Zorionak Irati, datorren aste- arman 3 urte beteko diluzulako. Ondo pasa eta musu bat gurasoen efa Nerearen partez.



• Zorionak amatxo, hilaren 8an 50 urte beteko dimzulako. Asko maite zaituzten zure seme-alaben partez, Egun ona pasa dezazula eta ea postel goxoak ekartzen dimzun posirerako.



• Zorionak Jokini, hilaren 13an urtetxo bat beteko duelako. Familiako eta lagun Anaren partez.



• Zorionak Ainhoari, hilaren 7an 8 urte beteko dituelako. Familiaren eta lehengusu losuren parmz. Zorionak baita ere amona Begoñari. Ehiekoak.



*Zorionak Luciari, apirilaren 9an 7 urte beteko dituelako. Familiako eta lagun Anaren partez muxu bat.



Zorionak Ibairi, astelebelean urte bat beteko duelako, Familiako eta bereziki, Unairen partez.



• Zorionak Ainhoari, hilaren 8an 7 urte beteko dituelako, Lehengusina Aliciaren eta Nerearen partez.



• Zorionak Asierrri, apirilaren leian urtetxoa beteko duelako. Musvak gurasoen eta artaia Aitorren partez. Irribarre goxo horrekin jarrai dezazula!



• Zorionak Esti, hilaren 2an 13 urte bete zenimelako. Ze, poltak opariak? Zure lagunak. Bereziki, Ainboa, Laura eta Sandra.



Ja, ja, ja... Ageriuko ez zinela koon, eh? Ezin genuen pasa zu zoriendu gabe. Agian pastelik ez baina tragotxoak inork ez dizki zu barkaluko, Musu handi bat lagurven partez. Ondo pasa.



• Zorionak iokini, hilaren 10ean 9 urte beteko dituelako. Gurasoen eta anaio Aitorren partez.



• Zorionak Nereari, hilaren 13an 2 urte beteko dituelako. Familiako eta bereziki, Norearen partez.



• Zorionak Ekhirri, hilaren 5ean urte bat bete zueloko. Gurasoen, aiton-amonen eta osaba-izeben pariez.

zine

FARTELDEGIA

ELGOI ntzokia

"Hannibal"
Zapatua: 19:30-22:15
Domekia: 19:30-22:15
Astelehena: 22:15

"Grinch"
Domekia: 16:30

"El gran Marciano"
Eguena: 21:30

EIBAR, Unzaga

"Tottente: Yis In en e"
Barixakua: 22:15
Zapatua: 17:00-19:30-22:15
Domekia: 17:00-19:30-22:15
Astelehena: 19:30-22:15
Martitzena: "19:30"-22:15

"Monkey bone"
Barixakua: 19:30-22:15
Zapatua: 17:00-19:45-22:30
Domekia: 17:00-19:45-22:30
Astelehena: 19:30-22:15
Martitzena: *19:30-"22:15

"Prueba de vida"
Barixakua: 22:30
Zapatua: 17:00-19.30-22:30
Domekia: 17:00-19:30-22:15
Astelehena: "19:30

"Hannibal"
Barixakua:
Zapatua: 19:30-22:30
Domekia: 19:30-22:30
Astelehena: 19:30-22:30

"Asterix eta Obelix (euskaraz)"
Domekia: 16:30

BARRENEK ez du gerta litezkeen emaitzaren ardaketan erantzukizunik.

Asfr

FIANNIE3

"Hannibal"

Zuzendaria: Ridley Scott.

Antzezleak: Anthony Hopkins, Julianne Moore, Giancarlo Giannini.

Hamar urte pasa dira Hannibal Lecter doktoreak ihes egin zuenetik. Clarice Sterling, FBI-ko agentearentzat, ordea, bere ametsgaiztoetako protagonista izaten jarraitzen du. HanTilbalentzat, berriz, fantasiarik kuttunena da Clarice. Bietako inork ez du bedrel burutik ateratzerik lortu. Hannibalen kanibal sena ahaztu ez duen beste biffriere seigarren biktima izan zena da. Dirutza handi baten jabea denez esfortzu guztiak mendekuan bideratuko ditu. Bien bitartean, doktorea Italian dago izkutututa.



INTERESEHO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulatorioa . 943 03 26 10
 Planning-a 943 74 29 50
 Alkohobko Anommoak 94374 03 85
 Q.YA (anbulantzia) 943 46 46 22
 Gurutze Gorria . 943 74 38 64
 Mendaroko Ospitalea. 943 03 28 00
 Odol Emaileak . 943 74 39 36

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak. 943 74 04 42
 PESA (Donosha) 902 10 12 10
 Taxi geltokia . 943 74 08 98

UDALA

Euskara Zerbitzua. . 943 74 43 66
 Udal Krrol Patronatua. 943 74 44 15
 Kultura Zerbitzua. 943 74 21 58
 Mendaroko Udala.. 943 75 61 00
 Ongizate zerbitzua . 943 74 10 08
 Udaletxea 943 74 10 50
 Udaltzaingoa 943 74 13 94

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra .. 943 74 16 26
 Kiroldegia 943 74 44 15
 Kontsmo Bulegoa .. 943 74 30 88
 Liburutegia... 943 74 35 25
 Musika Eskola 943 74 21 45
 Mintxeta 943 74 43 15
 Parrokia 943 74 08 42
 Postetxea 943 74 15 47
 Gaztetxea 943 74 35 72

ADINEKOEN ETXEA

San Lazaro Egoitza. 943 74 02 96
 Zanarren Biltokia .. 943 74 05 26
 Eguneko Zentroa 943 74 45 65

IKASTETXEA

Haur Eskola 943 74 21 41
 HHI (EPA) 943 74 08 80
 Herri Eskola .. 943 74 08 79
 I.M.H. 943 74 41 32
 Institutua
 Arreiturre 943 74 80 19
 Ezenarro (Meka).. 943 74 80 19
 Ikastola 943 74 44 47
 Pilar Ikastelxea 943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN..... 943 74 41 12
 El Oiario Vasco . 943 74 40 73
 El Correo Español.. 943 74 10 82
 Zazpiki irratia . 943 74 34 74
 Egunkaria..... 943 30 02 28
 Gara..... 943 31 69 99

agendo

2001-IV-6

6 BARIXAKUA

**19:00 ELGOIBARKO IZARRA IDATZ
 LEHIAKETAK 2000 SARI BANAKETA**
 Kultur Etxeko hitzaldi gelan
 Ondoren, Joxe Mari Karrera ipuin kontalaria

**19:00 MARGO ETA ESMALTE
 ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA**

Egilea: Maider Gazquez Gorriti
 Kultur Etxean
 Apirilaren 22ra arte

22:30 ANTZERKIA
 Izenburua: "El hombre que confundió a su
 mujer con un sombrero" (gaztelaniaz)
 Taldea: "Txalo Antzerki Taldea"
 Herriko Antzokian

7 ZAPATUA

19:30-22:15 ZINEA
 "Hannibal"

**20:00 PARROKIKO ABESBATZAREN
 KONTZERTUA**
 Aste Santuko Kontzertua
 San Bartolome parrokian

8 DOMEKIA

**12:30 UDAL MUSIKA BANDAREN
 KONTZERTUA**
 Herriko Antzokian

16:30 ZINEA
 "El Grinch"

19:30-22:15 ZINEA
 "Hannibal"

9 ASTELEHENA

22:15 ZINEA
 "Hannibal"

12 EGUENA

19:30-22:15 ZINEA
 "El Gran Marciano"

13 BARIXAKUA

19:30-22:15 ZINEA
 "El Gran Marciano"

14 ZAPATUA

19:30-22:15 ZINEA
 "La Bendición"

15 DOMEKIA

19:30-22:15 ZINEA
 "La Bendición"

16 ASTELEHENA

19:30-22:15 ZINEA
 "La Bendición"

19 EGUENA

21:30 ZINE KLUBA
 "Memento"

20 BARIXAKUA

**22:30 GIPUZKOAKO BERTSOLARI
 TXAPELKETAKO SAIOA**
 Bigarren fasea
 Herriko Antzokian

ERAKUSKETAK

Maidar Gazquez Gorriti pintorearen margo eta esmalte erakusketa gaur, hilak 6, inauguratuko da Kultur Etxean. Astelehenetik larunbatera, 19:00etatik 21:00etara eta igandean 12:00etatik 14:00etara izango da erakusketa ikusteko ordutegia. Apirilaren 22ra arte izango da ikusgai.

KONTZERTUAK

Elgoibarko Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du domekan, apirilaren 8an, Herriko Antzokian. Jose Antonio Osororen zuzuendaritzapean honako pieza hauek joko dituzte: "The Liberty Bell" (J.P. Sousa), "Marcha Eslava" (Tschaikowsky), "Cardiff Castle" (T.J. Powell), "Herb Alpert Selection N° 1 (Coleman), "Fiesta en Sevilla" (R. Dorado). Saioa eguerdiko 12:30ean hasiko da.

TXAPELKEIA**Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa**

Datorren apirilaren 20an jokatuko da gaueko 22:30ean Elgoibarko Herriko Antzokian Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako bigarren faseko lehen kanporaketa. Unai Agirre, Ekaitz Goikoetxea, Arkaitz Goikoetxea, Aritz Aranburu, Jon Martin eta Bixente Gorostidi izango dira partaideak. Sarrerak egunean bertan salduko dira 600 pezetan (Bertsozale Elkarteko bazkideek 500 pezeta ordaindu beharko dituzte).

Arkulariak Liga Txapelketa

Bihar larunbata, apirilaren 7a, "Arkulariak" elkarteak antolatuta, ligaren azkeneko saioa jokatuko da Etxabarrin, Bizkaian. Jardunaldia goizeko 11:30ean hasiko da bertako polikiroldegian. 50 arkulari bilduko dira guztira eta Zarta Arkulari Taldetik ere bertan izango dira 5 edo 6 arkulari. Jardunaldi hau garrantzitsua da elgoibartarrentzat, lehenengo postua lortzeko aukera dute-eta.

ASTE SANTUKO MEZAK eta ELIZKIZUNAK

	Hilak 8 Erramu Igandea	Hilak 9 Astelehena	Hilak 10 Asteartea	Hilak 11 Asteazkena	Hilak 12 Ostegun Santua	Hilak 13 Ostiral Santua	Hilak 14 Larunbata	Hilak Pazko Igandea
ARFIOKIAN	11:00 prozesioa, bedeinkazioa eta meza 12:30 Meza	16:30/20:00 Penitentzia ospakizunak (Euskaraz)	16:30/20:00 Penitentzia ospakizunak (Gaztelaniaz)		10:00-12:00 Banakako penitentzia 19:00 Azken afariko ospakizuna 22:00 Jaunaren aurreko otoitza	17:30 Jesusen Heriotzaren ospakizuna 20:00 Gurutz Bidea	21:00 Pazko Bijilia	10:30 Meza nagusia eta prozesioa 12:30 Meza eta bataioak
AN I'A LA RAN	9:30 Prozesioa, bedeinkazioa eta meza				17:30 Azken afariko ospakizuna 21:30 Jaunaren aurreko otoitza	9:00 Irakurgaien ordua 11:30 Gurutz Bidea 17:00 Jesusen Heriotzaren ospakizuna	22:00 Pazko Bijilia	9:31) Meza
IAD ALAN	8:30/12:30 Prozesioa, bedeinkazioa eta meza		20:00 Penitentzia ospakizunak (Euskaraz)	20:00 Penitentzia ospakizunak (Gaztelaniaz)	19:30 Azken afariko ospakizuna 22:00 Jaunaren aurreko otoitza	10:00 Gurutz Bidea 17:30 Jesusen Heriotzaren ospakizuna	20:30 Pazko Bijilia	8:30/12:30 Mezak
IAN ORENTZON		20:00 Penitentziak 21:01) Penitentziak (San Antolin)			18:00 Azken afariko ospakizuna	19:00 Jesusen Heriotzaren ospakizuna		

erretratu zaharra

2001-IV-6



A

ste honetako erretratua 1961 edo 1962 ingurukoa da. 13 urte izango zituzten, gutxi gorahehera, bertan agertzen direnek. Lerungo futbol zelaian daude, Mugerza kroserako atletismoko entrenamenduaren ostean. Ikus dezakezuen bezala, lasterka egiteko janzkera eta prestakuntzak asko aldatu dira, hasi oinetakoetatik eta arropataraino.

Hauek dira, ezkerretik eskumara, erretratuan agertzen direnak:
Jose Antonio Etxeberria, Jose Antonio Gonzalez eta Pio Iglesias.

MERKATU PLAZA

HILERO ZOKKETA BEREZIA

WILEAN 20.000 pta. ko 2 txeke zozketatuko dira.

FI

AMAIA
ARANTXA eta MARIAN
ART FRUT
KEPA
MARIA ANGELES
ZABALA

1911R11⁰¹1111/1

FERNANDEZ
INAKI eta AMPARO
OSORO
ZABALA

HARATEGIAK

ERMELA
FRAILE
JUARISTI
MARI

4120111114.

BECE

LC ./. .LP./11

EL RUSO

AZEITUNAK

SUSO

4119.Aj .ft

DOMINGUEZ

9114"fillik

TXILLARRE

49,14,14.11 9011,M

IBARRE

11,111:1J 5»:11:RAK

KIKO

TABERNA

TXIRIBOGA

**GAZTA
eta BAKAILAOA**

ETXABE

E44441.44Aai i 4 4 4»4*
te " i 4 4

ZEZEN-BIDE AUTO-ESKOLA

Auto, autobus, kamioi
eta motorrentzako
gida-baimenak



10eko deskontua
Gazte Txartelarekin



A-I0

greba eta okorra

*burujabetzaren alde
bakearen alde*

ELGOIBARREN
Goizeko 10etan
Plaza Handian

Mar
1
r

EIBARREN
Eguerdiko 12etan
Unzaga Plazan

Pi
r

ELGOIBARREN
Arratsaldeko 8 etan
Plaza Handian

**EUSKAL HERRITARROK • LAB • HAIKA
SENIDEAK • AMNISTIAREN ALDEKO BATZORDEAK**